

Barrundia

Amamengandik bilobengana



Arabako herriak

BA RRUN DIA





Barrundia

Barrundia Arabako Lautadan nabarmentzen den orin berde gozagarri hori da. Gipuzkoa eta Nafarroa aldamenean ditu eta historian iraganbide izan da, hainbat ibiltari ezberdinentzat.

Erdi Aroko biderik asko, bidezidor ezkutua ere ugari eta erromatarren garaiko galtzada edo harbide bat hemen zehar doaz, eta haietan harantz-honantz ibili izan direnak ere anitz; alderdi honetan bide-lapurrak eta jaunak, sinestunak eta aukera hobeen bila ibilitakoak. Baselizak, ospitaletxeak, ostatuak eraiki izan ziren, erromesak hartzeko, ibiltariei babesleku emateko, salerosleen geltoki izaitzeko, eta hemen zehar Frantzia aldera batzuk, Gaztela aldera bestetzuk, Nafarroako lurretatik joan bage.

Barrundiako Anaigoa, Ermandadea alegia, Lazarragako jaunaren eraginpean zegoen, berau Gebara-tarren leinu ahaltsuaren mendeko baitzen, bizkai gainean gaztelu izen handikoa beraiena zelarik.

Barrundia, egun, lasaitasuna bilatzeko leku egokia da, herri-mendiz inguratua, basetxe eder-ederrak nonahi, eta belaze edo larre gozo txundigarriak han-hor-hemen. Oraindik behiak eta ardiak alhan naroki ikusten dira, eta gizon-emakumeak ere landa-soroetan bizimodua izadiarekin bat eginez lasai antxean, nahiz eta haietarik gehienak lanera Gasteizeratu.



Amamaregandik
bilobarengana

Lehen eta orain





Teresa Barrena- rekin

Barrundia

Neguko edozein goiz hotzetan, base-
rrietako tximinetatik irteten duen keak
eguratsa lainotzen du.

Etxe horiek, gutiz gehienak berriztatua,
gainbizitzeko ekonomia egiten zen garai-
koak dira, sendi handiak zirenekoak.

Lugintza, nekazaritza, hemengo jendea-
rentzat bizibide nagusia zen, harik eta
merkatu-ekonomiak modernitatearekin
beste biziera bat ekarri zuen arte.

Honela ere, sukaldeetan erretako
egur-usaina darie, leheneko sukalkiena
ere bai.

Teresa Barrenak goizoro sua pizten du,
Ozetako bere basetxean. Gogoratzen duen
alditik hona beti horrela egin izan du.

Hogeita hamar urtetara arte bere gu-
rasoen etxean, ezkondu eta gero berea
izango zen etxean, bestearen aurrean
berrogeita hamar metrora dagoene etxean
hain zuzen, auzoko mutilarekin ezkondu
baitzen.

Orduan “bide guztiak lokatz eta potxingo”,
eta sorogintza gehienen ogibide.



“

*Txin oso gutti
genedukan, baina...
banatu egiten zen eta
askotarako genuen”*

Asto
laso lanean



Teresaren ezkontza. Sendiaren bilduma

1930 inguruan, Lautadako baserrietan, ezer ez zegoenean eta zegoen apurra abereen eta etxearen artean banatzen zenean bizitza eguzkitik eguzkirako lanaldia zen.

Teresak, 8 urte baino ez, ahal zuen guztietan laguntzen zuen. Etxean behiak, urdeak eta oiloak, baina sorroan labore eta lusagar, “goserik ez”.

Aita-amek, beste asko bezala neka-zariak, eskolara beti bidaltzen zuten, baina eskolatik itzuli eta janzkera aldatu, eta espartinak erantzi eta gomazko abarkak jantzi, eta lanera, ukuilura ez bazen sorora. Beti zereginik bazegoen.

“Gutti genedukan arren, asto laso lan egiten genuen, gibela bota beharrean; orain traktorez berehalako baten egiten dute”.

Xalo-xalo, bizitza halakoxea zen. Eta igandean txakur ttikirik ez, kakahueteak edo erosteko, nekazariak neke bai irabazpiderik ez, eta beste-rik bage, hara, jolastera, han jauzi hemen brinko, biribilketan edo petanka jokoan.





Dirurik gabe

Herrian errota zegoen, jostun edo soinekogile bat eta gauza batzuk erosteko denda.

Barrena sendikoak guttitan bertaratzen ziren. Teresaren aitak ez zuen ezer saltzen, soro txikirra, eta oiloek arrautzak erruten zituztenean, etxerako nahikoak eta gehiago, dendara eraman eta espartinak erosten zituzten.

“Ez dakit norean irteten zuen zegoen diru apurrak”, baina etxean eskola askietsi ez eta jostundegira bidali zuten ikasle.

Herrian errota zegoen, jostun edo soinekogile bat eta gauza batzuk erosteko denda.

Teresaren basetxea ►



“

*Ez dakit nondik
irteten zuen
zegoen diru
apurrak”*



Ozetan forja-eskola bat ere egon zen,
eta Teresak bazkaria prestatzen zuen,
indabak edo patatak, kanpotik etorten
ziren mutilentzat.

“Sukaldari merkea nintzen”.

1930en jaio zen eta zentzuarekin eskue-
tan indarra duenaz geroztik, denetarik
egin behar ukan du.

“

*Zentzua
duenetik...
denetarik egin
behar ukan du”*

*Teresa bere bilobetako batekin ►
Sendiaren bilduma*







“

*Aurrera goaz
bizitzan hinkili-
hankala”*

Beti baserrian

Eusebiorekin ezkondu zen, hots, aurreko etxean bizi zen mutilarekin, garai haietan hogeita hamar urte beterik, heldu xamar. Eta zetorkion guztiari aur emaiten aurrera jo zuen: abere-talde handiagoa, lantzeko alorrak eta hiru seme-alaba eder, bi seme eta alaba bat.

Hamasei urtetan, hiruotako lehena ezbehar edo istripu baten ondorioz elbarritu zen. Luzaroan ZIUen egon behar, eta gero birgaitu beharra. Gasteizen lan egiten badu ere, ez da inoiz baserritik atera, ez amarengandik aldentu.

Eusebio 52 urteko zela hil zen. Ukuiluan, orduan, hogeitabat esne-behi eta beste honenbeste zerri zegozen. Orduan bai Teresak lanez leher eta behar zen guztia egin behar zuen, behiak jeizten ez bazen belar-pakak hara-honatzten, eta zer nahi zen ere.

Laura bilobak badaki “Barrena abizenak jende behargina, maratza esan nahi duena”.

Teresak, hirurogei urte beterik, behiak edeki zituen, kendu, baina beste bost urte gehiagoan zerriak hazteari ekin zitzaion. Geroago, urtean bi, etxerako lain; etxe honetan txerri-boda sakratua da eta.

▲ *Barrundiako basetxea. Argazkilaria: Lopez de Guereñu. Photo-Araba*



Ozetan, egun, zaintzailerekin

Basetxeak lehen bizilagunen bizitoki eta lantoki ziren, abereak ere barruan, azpialdeko ukuilu edo “korta”-n, baina pittaka-pittaka egoera hura, bizimodu ha aldatuz joan da, etorri da, eta gaur den egunean “basoko” zen etxea bizitoki huts bezain eroso bilakatu da.

Ozetako lagunik gehienak, egun, hirira lanera joan ohi dira eta egunoro herrira itzultzen dira, paisaia ederrera, zaratarik bagekora, betiko herri orain lehengoa bezalakoa ez denera.

Teresa berritasun honi, modernitateari moldatu zaio, egokitu zaio. Zaintzaile dituenen artean kubatar bat kantuz bere uharte urruneko doinuak ekarten dizkiona; “Yo, como estoy clueca, no me muevo”.

Emakume gogozabala da, bizimodu berriei begirune diena; etxeko gizasemeak ere sukaldeko lanetan aritzera eta esku hartzera bideratu dituena, noiz eta herriko idazkari, sendagile eta apaiz jaunak “herriko jaunak” zirenean.

“

*Morroi
kubatarra
dadukat”*

Apaizari, oraino orduan, eskuko eraztunetan muin eman beharra zegoen, non edo non topo eginez gero.

Ozetan jauregiak ere badagoz, baina behialako aberastasunak ez dira XXI. mendekoak bezalakoak.

Bazegoen landutako alor gehiago zedukarik, aukera gehiago ere bai, “baina ez guztiz-gutztiz aberatsak”.

“

*Aurrerantz, beti
aurrerantz jo
behar da”*

Laura, 28 urteko biloba, amama oso emakume sendo, dulabre eta biziera gogorrekoa izan dela ziur dago.

Ez da bidaiazale, oso gutitan joan da bidaiaz: ezkondutakoan Bartzelonara, eta gero bi aldiz Donostian izan da. Oporraldi guztiak horiek, eta beharretsi ez, gehiagorik behar ez. Gasteizera ere behar denean baino ez, gainera xorabiatu egiten da eta “tartana” iristen da, berak dioen bezala.

Teresaren leloa beti hauxe: “beti aurrerantz, nola edo hala”.

Eta Laurak beretzat hartu du. Beroni beste borroka batzuk etorten zaizkio eta hemendik beretik jarki nahi die, bere herri maite honetatik aur egin.

Haur-hezitzailea da, eta laugarren ikas-turtean ari zela trafiko-ezbehar bat jasan zuen eta hezur-muinaren zauria eragin zion. Honek ez dio saski-baloian jokatzea galarazten, eta ibilgailua gidatzea ere ez.

Beribil automatiko bat erosi behar ukan zuen, eta bere beharrari egokitu behar ere bai, bera den bezalako aurrerantzean ere izanen bazen, hots, maratz, bizkor eta ekinkorra.

Hemen bere laguntalde osoa du, eta gero eta gero jende gazte gehiago herriko bizitzan. Herrian hirian ez bezala, eta tikitan bere tresnarik onena txirrindua zuen, pirripita, Gebarako gaztelura iristeko, udan batzuen igeri-tokietara, mendira, errotetara... joaiteko.





Teresa adiskide batzuekin

“

*Ozetan bizitza
gozada da”*

Eta herrietako jaietara, topagune batziren, elkartoki gozoro eta lagunekin jolas-solas egitearren. Ez dute ordutegirik, etxera itzultzea ez da arazo. “Taldean jalgiten da eta itzultzen ere taldean”.

Adinak ezberdinak, jolasteko gogoak berdinak, herri honetako lagunak beti lagun eta gizartea beti lagunarte.



1 Garaioko hondartza

2 Larreako gazta sariztatua

3 Gebarako gaztelua

4 Maturatik Garaiorako ibilbide biribila

5 Bolo basetxea eta euskararik zaharrena



Barrundia EZIN BESTE KOAK

- 6 Ozetako bazeliza
- 7 Arabako basajai edo erromeriarik zaharrena
- 8 Bitxikeriak
- 9 Mendixurko Hegazti-Parkea
- 10 Txerri-boda

1

Garaioko hondartza

Larreak ur-ertzeraino heltzen dira, Suitzako aintzira bat irudi, Garaioko hondartza Uribarri-Ganboako urtegi ondoan dago.

Lehorreko hondartza honek 2.600 metro du luze, sorosle-talde bat ere bertan, 2 parkin eta 116 hektarea lur-soropil, gozatzeko eta laxatzeko, atsedeiten egoiteko hala egia.

Begiak goraturik, zikoinak ikusi ahal dira, koartza bat edo bat eta beste hegazti batzuk ere bai. Aurkintza liluragarri honetan gozoro dabilta, gozoa baita lekua, urpeturik geratu ziren herrixka haientzat izan ezik.

Txirrinduaz ibilteko bideak badira, parkearen barruan bai baina gure kutunena Matura herrirean Garaioko hondartzaraino doana da.







2

Larreako gazta sariztatua

Patxi Lopez de Uralde' Lautadako artzaina da, Larrea herri txikirrean bizi dena.

500 bat ardi, latxa motakoak, daduzka eta Euskadiko Idiazabal izendapenean gaztarik onenetakoa ekoizten du, 25 sari irabazita dago. Esku onari esker, bai, baina inguruko aro onari esker ere bai, mikroklima alegia; izan ere, Elgeako

mendi-lerrotik heltzen den hezea edo umela oso egokia da, larreentzat.

Gazta gozo-gozo hori dastatu nahi izanez gero, beraren basetxera hurbildu besterik ez da, bertan eskutik eskura saltzen du eta. Urtean, 8.000 edo 10.000 gazta ekoizten du, azaroan hasita uztaila bitartean.

Udan Patxi ardiekin Aldaia-Elgeako gainetara igaiten da, Arabarekin Gipuzkoak bat egiten duen alhagunera. Larreako Idiazabal gazta gatzagi naturalaz egin ohi da, eta zaporeak aho-sabaian irauten du.

Larreako Gazta
Etxebitarte Auzoa, 1 · Larrea
T. 945 317 029 - 606 221 066



3

Gebarako gaztelua

Orain aurriak baino ez, herexak dira, baina Gebara-tarren gaztelu hau, dorrea eta jau-regia eta guzti, XV. mendearen azkenaldian eraiki zedin, Errege Katolikoen garaian, Aldaia mendialdeko bizkai baten gainean. Beribilez erraz hurrera daiteke, oinez bezala, eta kanpo aldetik ikustea bada ere merezi du. Diseinua edo egitama, diotenez, Erromako Sant'Angeloko gazteluaren antzekoa

da, XIX.era arte onik zegoen zut.

Gebara-tarren leinu indartsuaren bizitokia zen, Oñatiko kondeak garai batez, eta Lehenengo Karlistaldiaz gero eraitsi izan zen. Barrundiako Anaigoa, Gaztela, Nafarroa eta Frantziaren arteko elkarbideak zaintzeko leku irona, estrategikoa zen, Erdi Aroan, Gebara-tarren eta berauen gazteluaren mendean.





4

Maturatik Garaiorako ibilbide biribila

Sar albaitzintez wikiloc-era 8,5 kilometroko ibilaldia egiteko, Matura aldeko mendixketatik Uribarri-Ganboako urtegiaren azken alderantz.

Bideak lehengo bide zaharrarekin bat eginik, Garaioako behatokira hel daiteke, Mendixurko parkeko bidean zehar itzuliz.

Maturatik -herrixka honek 37 bizilagun daduzka, eta hilerrri bat eraikin baten barruan, bitxia- beste ibilbide batzuk hasten dira Elgea mendi-lerrorantz, Gebarako gaztelurantz, edo Mendixurko Hegazti-Parkerantz.



5

Bolo basetxea eta euskararik zaharrena

Adreiluzko eta zurezko etxe honek, apirikuan harrizko zutabeak daduzkanak, Arabako Lautadaren historian leku sona handikoa du Larreako bazterraldean, bide baten ostean bezala ostenduxea, Lazarraga leinukoek eraikitakoa da, Erdi Aroan.

Oraindik orain, egoera onean dago; jabegoa du baina aldamenetik haren edertasun ederra mirets daiteke.

Juan Pérez de Lazarraga zuen nagusi eta jabe, 2004an aurkitu zen eskuizkribuaren egilea bera, XVI. mendekoa hain zuzen.

Euskaraz idatzitako libururik zaharrena da, oraingoz, eta bertan Euskal Herria izena dago, eusquel erriau idatzia, arabarren beste hitz berezi batzuekin batera, tokiko hitzak alegia.



6

Ozetako besalietxea

Ezusteko harrigarria XVII.eko basiliza hau, herriko sarguan basetxe batean ezkutan bezala eraikia dagoena.

Jakinmin handiko ikusleentzat: aitzinaldean arku bi orain itsutuak, eta harria landua, eta janzkaiak zintzilik eta ondo zaindutako arrosak, bizia den zantzua, eliza eta bizitoki batera.

Baseliza hau farntziskotar batek eraiki zuen, Luzuriagako anaia Luis zeritzonak, Ozetako gizon argidotar batek, hain zuzen

ere. XVII. mendean frantziskotarren nagusi gorena izan zen, Nueva España -Mexiko eta Filipinak- delakoan, eta bere herriko basiliza hau eraikitzeko 600 peso eman zuen, Sortzez Garbiaren omenez. Eliza honek ez zuen luze iraun, 1856az gero ez da elizkizunik egiten, eta parrokia-liburuetan ez da harez gero agertzen.

Urteak joan eta etorri, aletegi bihurtu zen, ederra baina xaharkitua hala ere, antzinako gauzez eta bitxikeriez bete.

Jabea den Julio Uriarterekin topo eginez gero, 90 urteko gaxtearekin hala egia -oraindik herritik txirrinduaz ibili ohi da- tenplu tiki honen barrualdea erakutsiko dizu.



7

Arabako erromeriarik zaharrena

Orain dela 500 urte baino gehiago, urteroko uztailaren 4 guztietan, El Barte esaten dioten artirinazko ogi erraldoia bedeinkatzen eta jaten da.

Suziri bat iraitzi ondorean, auzotarrak oinez Tours-ko Martin Deunaren basiliza txikurrera hurbiltzen dira, ondoan dagoen Hermua herrira, kilometro batera.

Txistua joiten da, aureskua dantzatzen da “gurea den bezain zaharra”, izen zerrenda aztertzen da, eta Marrin Deunaren irudia aurrean dagoela meza opatzen da.

Ekandu honen jatorria hauxe izan zitekeen: izurrite batean Hermuak Larreari lagun ziezaion; esker onez San Martinen irudia Hermuko basilizara eroan izan zedin, eta ordainetan urteroko ikustaldia.

Beste bertsio bat ere badago, XVI.ean larreak eta urak auzitan, eta ebazpenak Larreari “bolo-jokoa eta dantza” egiteko eskubidea eman zion, Hermuan urteroko uztailaren 4etan, eta egin ezean Armutegi mendiko larre-eskubideak galduko zituen.



8

Bitxikeriak

Derediako San Kristobalen eliza eraikin errenazentista monumentalak da eta dorrean dagoen erlojuari, oraindik ere, giltza eskuz emaiten zaio, eta otoitz-deia ere eskuz joiten dute auzokoeak.

Eliza hau ekialdeko Lautadako eta Araba osoko tenplu pintzelatuen artean nabarientetako bat izan zen. Baina pintzeladura errenazentista hori habearreko hiru gangetako gurpiletan baino ez da azaleratzen gaur egun, denboran zehar behin baino gehiagotan zuritu eta kareztatu egin dutelako.

Derediatik hur, egun Barrundiako udaletxea eta antzinan jauretze zena ez duzu ikusteke utzi behar. Ameriketatik etorten zen diruaz, XVII.aren hasieran Iduiako (Ihidoi?) Jauregia eraiki zen. Jabea, orduan, jaun Peru Peritz Iduiako, kapitaina, Txilen aberastua.

Maturan hilerria da harrigarri, Araban eraikin baten barruan dagoen bakarra.



Argazkia, Fernando Sánchez Aranaz

9

Mendixurko Hegazti-Parkea

Europako hegazti asko etorri ohi da negua pasatzera, habiak ipintera eta Afrikara bidean atsedean hartzera, Mediterraneo eta Atlantikoko klimen arteko trantsizio eremua baita.

Hiru behatoki eta 70 hektarea baino gehiago ditu, Uribarri-Ganboako urtegiaren hegoaldean, eta Hegazti-Parkea leku irona, egokia da hegaztiak behatzeko –berrehun baino mota gehiago– uretakoak, batez

ere: koartza hauskara, hegabera, lertsunak, era guztietako ahateak... Informazio-paneletan oso ondo azaltzen dizute, eta, zorte pixka batekin, elkar limurtzen ikusi ahal dituzkezu, flañukatzen, zirri-mirrika.

Hezegune hau Ramsar-ko Zerrendan dago, munduan diren hezegunerik garrantzitsuenak biltzen dituen, 2000 Natura-Sarea delako horretan ere badago, eta Zainketa Bereziko Eremu (ZBE) izendatu dute.



Argazkia, Diego Martínez Lahidalga

10

Zerri-boda

“Senitarteak biltzen ziren, urdea hil, ziri-garratu eta hesteak garbitzeko”. Zerri-boda jaia zen, Lautadako eta Arabako baserri guztietan egin ohi zen janari-jaia, orain dela guti arte bizirik egon den ohitura. Urdaia eta giharra baserritarrentzat baitezpadako janariak ziren, urte osoan beharrezkoak.

Emakumezkoek, batez ere, urdea hil aurreko egunetan lan eta lan egiten zuten, prestaketan. Kobrezko galdara ozpinaz eta gatz lodiaz ikuzi behar zen, tipularik onenak, piperrautsa eta kanela aukeratu, eta orratzak eta haria prestatu odolkiak eta txorizoak josteko; gizonezkoek, berriz, labanak eta aizkora zorrotzen zituzten, eta mahaia eta gakoa ateratzen zituzten.

Hilketa egunean, urdea hil eta ileak erreta, zizpilduta, gako batetik dilindan, eseki ohi zen, luzean erdi bi eginda, hotz zedin. Hurrengo egunean, zatikatu behar zen, al baitariari puxka batzuk eman ere bai, iker zezan ea gaisotasunik ote zuen. Etxeko guztiak langile, bai eta auzoko eta adiskide batzuk laguntzaile. Hiltzean emakumezko baten lana odola biltzea zen, pertz batean, gero odolesteak, buzkantzak edo odolkiak egingo baziren.

Urdai zati lodiak eta urdaiazpikoak gatzetan gordetzen ziren. Emakumezkoek hesteak eta erraiak garbitu behar zituzten, berakatz, gatz eta ur epelez; gero lapikora eta josi. Giharra zistorrak egitekoa zen: hesteetan sartu, bete eta eseki.

**Aguraingo Emakumeak Eskualdeko VIII. Jardunaldiko informazioaz prestatutako txostena. Pdf osoa ikusteko: www.pueblosdealava.com*

Barrundia zenbakietan

Herriak

Audikana · Dallo · Elgea ·
Etura · Etxabarri Urtupiña ·
Gebara · Heredia · Hermua ·
Larrea · Marieta-Larrintzar ·
Maturana · Mendixur ·
Ozaeta

Beste datu batzuk

942 bizilagun - 2024
1.500 bizilagun (XX-m.)
5.061 ardiak eta behiak
2.129 soro-alorrak
138 zaldiak
3 taberna-jatexeak
4 aloka-toki

Barrundia

◀ ● ● ●	20 Km	● ▶	Gasteizera
◀ ● ● ●	79 Km	● ▶	Bilbora
◀ ● ● ●	99 Km	● ▶	Donostiara
◀ ● ● ●	83 Km	● ▶	Iruñera



Arabako Herriak

Amamengandik bilobengana

Ezinbestekoak, isilpekoak, historia eta ohiturak, ibilbideak eta gastronomia

Gure herrien lehen-geroa protagonisten bitartez, bertan bizi eta lan egindakoen euren oroitzapenak utzi dizkigute, eta lehen haretatik gerorantz goaz. Amamek ohiturarekin ekanduak biziarazi dituzte, baserri zein landerri, gure Araba honetan.

Arabar askok bere herriaren historiari bere istorioa erantsi dio. Oroitzapenen zaintzaile, jakinguraz beteak eta eskuzabalak, isilak maiz, lurralde eder honen nondik-norako guztien berri eman digute.

Askotariko Araba, tokian-tokian berezia eta, honela ere, jendez eta bizierez batua.

Laguntzaileak:



Barrundiako Udala
Ayuntamiento de Barrundia



Gehiago jakitearren gure web-gunean



arabakoherriak.com